



AGNH FEADAH MANIFESTUA

ZERGATIK ALDARRIKATU #ENCAJAMOSIGUALQUETU?

AGNH duela diagnostikatzen zaion pertsona batentzat gogorra da onartzea nola orain arte ezjakintasunak bultzatuta “ez du nahi”, “alfer hutsa da”, “adarra jotzen ari zait”, “dena ahazten zaio”... zena, bat-batean EZIN DUT bilakatu den. Kontzentratzeko, antolatzeko, pausatu eta pentsatzeko zailtasunak ditu.

Baina gogorragoa da egunerokotasunean gure eskubideak zalantzan jarriak eta gutxietsiak direla ikustea eta gizarte honetan tokirik ez dugula edo uzten ez dugutela sentitzea.

AGTH-ren diagnostikoen zalantzan jartze azaleko eta gupidagabe bate ematen da sarritan. Osasun, hezkuntza eta gizarte arduradunen aldetik, ISILTASUNA medio, AGNH-ren existentzia bera ere zalantzan jartzea uzten da zenbait egoeratan.

18 urte betetzean gizartean tokirik ez dugu, tratamendu farmakologikoa KENTZEN zaigu, eta alta eman. Ohiko argudioa da medikazioa ez omen dago HELDUENTZAKO definitua, baina EZ DA EGIA. Tratamendua haurtzarorik jasota, helduaroan jarraitu daiteke. Kuriosoa da nola tratamenduaren kostua norberak bera gain hartu ezker, arazorik ez den izaten medikuen aldetik. Arrazoi ekonomikoak tarteko baztertuak izan ohi gara. Honen aurrean bizitza osorako esku-hartze publikoa eskatzen dugu BAI ala BAI.

AGNH-ren diagnostikoa helduaroan gertatzen bada, eskuarki lan arloan, harreman sozialetan edo bikotearekin izaten diren arazo larriengatik izan ohi da. Esku-hartze goiztiar baten bitartez hau ekidin ahal izango litzateke. Gizartean ezin dezakegu tokirik hartu:

- AGNH-ri buruzko ezagutza eta kontzientzia duten profesionalak falta zaizkigulako. Arlo publikoko profesionalen zuzendutako formazioa BEHAR dugu.
- Gure Osasun Sistemak AGNH-ren jarraikortasuna eta kronikotasuna ez duelako aitortzen.
- Trastorno honi buruzko nazioarteko gidetan onartutako sendagai batzuk finantziario publikorik ez dutelako.
- Lanpostu batzuek betetzeko mugak daudelako, nahiz eta ADHD EUROPE-ren aurtengo manifestuan adierazten den bezala, berezitasun hauek onura handiak ekar ditzaketen edozein erakunderentzat, ondo kudeatu eta onartu ezker.

ONARTUAK IZAN GAITEZEN NAHI DUGU

AGTH-RI ESKER DAUZKAGUN GURE INDARGUNEAK AZALDU NAHI DITUGU



**GURE TOKIA IZAN NAHI
DUGU!!!**